

# XABIER ARZALLUS LEGEGIZONA

## Biziaren ezaugarri da sagardoaren aparra Tirabirak bakarrik kaleratzen dira

Bagenuen Xabier Arzallus eza-gutzeko gogoia. Deustuko ikasle batzuen bidez izan genuen beronen entzutea. Irakasle argitzat eta zentzuzkotzat dute nonbait.

Donostiaraino irixten omen da orain Bilboko «avenida», baina Donostiako ez da gaurkoz irixten Bilboraino. Uda guztia igaro zaigu Bilbora joateke.

«Derecho politiko» deitu gaia irakasten du. Lehen Madrilgo Unibertsidadean. Orain Deustu-koan.

Baina ez da irakaskintzatik bakarrik bizi. Ez da beti liburu artean egon ohi den gizona. Badu harremanik ikasleekin. Legelari denez, berriz, abogadutzan lan egiten du. Ondo ezagutzen ditu gizonari legetik sortzen zaizkion katramilak. Gizona beste gizonekin eta herri bakoitza beste herriekin bizi dadin gizarteak egiten dituen itun eta legeen berri daki ondo.

—oOo—

—Badakit presaka zarela, Xabier. Ez naitaizu zeharka eta jirabiraka ariko. Horra zuzenean nere galdera: Euskaldunok politikoko onak gurela uste al duzu?

—Jeneralean ezetz uste dut. Beste horrenbeste gertatzen da beste lekutan ere. Euskaldunen artean ere goi-mailan egon den politikoko asko izan da. Era bateko ala beste gobernuak eduki, beti egon da euskaldunen bat agintean. Batez ere gipuzkoarrek dute politikoko fama. Aztertu egin beharko genuke politikoa hitzaren esanahia. Abeslariak, olerkariak, bertsolariak eta abar hartu ohi dira herri bateko kulturaren agerpen bezala. Baina kulturaren agerpenik finenetakoa herri bakoitzak bere gorabeherak eta arazoak zuzentzeko eta konpontzeko hartu dituen erabakiak eta egin dituen legeak dira. Euskaldunok herri gutxi bezala konpondu izan dituzte beren arteko sesioak eta zuzendu beren harremanak. Hor daude fueroak. Jendeak ez ditu ezagutzen. Nik ere berandu ezagutu ditut, kanpoan ibili bait naiz oraintsu arte. Nik ez dizut esaten munduko deretxo guztia ezagutzen dudunik, baina nere jakite apurrean ez dut honelako gauzarik beste inon ikusi. Politikoko onak ziren ezaugarriak gabe bizimodurako tratatu hoiek egin zituztenak. Euskalduna ez da ibili pentsamolde sakonetan murgildurik. «Hik errespetatu ezak nerea eta nik errespetatuko diat hirea» izan da euskaldunon legea antzinatik. Hor dago gure legebidearen muina eta oinarria. Eta ez dut uste legebide hori kristau hildotik edo Erromatarren haritik datorrenik. Herriaren izateko moduaren barru-barrutik erne da. Herrigizon zentzudun eta jatorrak eman ohi dituen buruzpideetatik sortu da Euskal Herriko legegizona. Herri bakoitzeko eta Euskal Herri osoko batzarreetan erabakitzen zituzten beren gorabeherak.

—Hain zentzudunak izanik nola dauzkagu horrenbeste ezinkonpondu? Bizi-seinale ala ezjakintasunaren edo setakeriaren fruitu dira euskaldunon arteko tirabirak?

—Ez da erraza erantzutea. Badagoela bizi-seinalea uste dut. Euskal Herriaren gorotz edo ximaur direla esan du egunkari batek oraindik orain gure arteko zenbait gertaera. Nik uste sagardoaren edo zerbezaren gaineko aparra eta pitsa bezala direla. Barruan indarra duen sagardoari ateratzen zaio txinparta eta aparra. Adibide hau Euskal Herriko gertaera guztietara zabalduko nuke. Barru-barrutik dario Euskal Herriari indarra eta bizia. Pitsa ez da edaten, aparra ez da edaten, baina biziaren ezaugarri da. Indar hori zuzenduko duen biderik eta molderik ez dugu, zoritxarrez. Arlo guztietan erretzen ari den bizi hori baliaraziko duen egiturak behar ditugu maila denetan. Indar hoiek denak zuzentzeko itzala, nortasuna, izana eta izena duen erakunde bat behar da. Eta hori ez dago. Baina horretarako egokierak ere behar dira. Sortuko dira bere garaian gidari eta erakunde egokiak. Ezin hitzegin honetan, sesioak eta tirabirak bakarrik azaltzen dira kalera. Alde bateko eta beste go-gorkeriak bakarrik bistaritzen dira. Kalera bururakari buruberoak ateratzen dira. Zentzudunak —eta esanahi jatorrean darabilt hitz hau— ez dira bururakara kalera iristen. Nik uste, badator gauza hauek denak konpontzeko egokiera. Berehalaxe izan ditzakegu al-daketak.

—Hainbeste aipatzen den «irekitasuna eta demokrazia» adierazi nahi dizkidazula uste dut. Badatozela uste al duzu? Zer aldaketa usantzen dituzu?

—Nik uste, inork ez dakiela zer datorren. Berdin har dezake gidaritzako oso eskuineko jendeak eta berdin gerta daiteke eten bat ere. Baina poliki-poliki dabilen gurdia-aren antzera aldatuz ere joan daiteke. Nik uste beste biderik ez dagoela garbi ikusten dutela gaur agintzen daudenek berek ere. Aldika aldika egingo litzateke, noski,

aldaketa hau. Piskana-piskana irekiko dira aginterako ateak. Zuk badakizu, egunkarietan irakurri duzenez, «junta democrática»-ren berri. Europako zenbait naziotako demokraziaren tankerako eta giroko zerbait ezarri nahi litzateke. Nik ez dakit zertan geratuko den hau guztia. Dena den, demokrazia jator bat egin nahi bada langile-riaren eta herrien arazoari erantzun bat eman beharko diote batzuek eta besteek. Ez dago beste biderik onetz konpondu nahi badira arazo hauek.

—Zer urrats eman beharko genituzke gainean dugun demokratizatzearen aurrean galduan atera ez gaituzten?

—Ni praktikoa naiz. Askok putza dela esango dizu demokratizatzeko hau. Beste zenbait, berriz, beste zerbait. Ni dogma denekin leporaino egina nago. Erakundeekin gehiago. Ni demokrazia naizu. Ni ez naiz burutapen eta gogoeta sakonetatik hasten. Edonork izan dezakeen buruzpideetik hasten naiz. Denok pertsona gara. Eta guztiok dugu zer esanik. Bakoitzak bere beharrak eta ikusmoldeak ditu. Nahi eta ez elkarrekin bizi behar badugu konponketa batera iritxi behar dugu. Honetarako gehiengoaren esanaera eta iritzira jarri behar dugu. Agian, gutxiengoak izango du arrazoi. Baina bila eta aurki ezazu elkarrekin konpontzeko beste bide bat. Gizon bakoitza haintzakotzat hartzea da demokrazia. Bakoitzak bere izaera, bere pentsaera, beharrak eta jokabideak ditu. Nik hain arrazoi izan dezake kalegarritzaileak edo atezainak, nekazariak edo langile soilak. Nik errespetatu egin behar ditut. Bestela era bateko edo beste go-gorkeriak lardetakoian jausten gara.

—Baina ni lehen egin dizudan galderari lotzen naitaizu?

—Ni ez naiz «dena ala bat ere

ez» horren aldeko. Ez dugu edozer onartu behar, jakina. Baina gure oraingoz gure kultura eta nortasunari eutsi behar diogu. Gure herriak bere denboratan iritsi eta erabaki izan zuena eskatu behar dugu. Besterik gabe asko indartuko eta berpiztuko lirateke gure kultura eta nortasuna. Ni ezin naiteke hau onartzen ez duenaz lanerako elkartu. Guk ez dugu lehen lortu eta erabaki zena eztabaidatuz denbora galtzeko betarik. Gu euskaldun bezala onartzen eta haintzakotzat hartzen gaituenekin bakarrik elkartu gintezke.

—Zer garrantzi ematen diozu euskal kulturari?

—Herri honen izatea bera da kultura. Herri nortasun herri galduko luke, kultura galduko balu. Kultura eta hizkuntza desberdinak ez baditugu ez gintezke nortasun bereziak mintzatzeko inhardun. Lan on bat eta beharrezko bat egiten ari da euskal kurturgintzan ari dena. Gutxi egin da zoritxarrez. Izan diru kultur saio eta ekitaldiak. Hor duzu «sociedad de estudios vascos». Euskal Herriak behar lukeen Unibertsidaderik ez da behin ere izan. Horren hutsunea bete zuten nolabait ere elkarrekin. Orain ere gazteriak benetan hartu du kurturgintza hau. Taldekerietatik askatu beharko litzateke ekintza hau, agian. Kulturari gabe herriak ez da. Kultura egin behar dugu herria bizi dadin. Aparrik botatzen ez duen zerbeza txixxa da. Kulturari botatzen ez duen herria ere hilik dago. Baina ondo berezi behar dira euskal kurturgintzan ari direnak eta itxura bakarrik egiten ari direnak. Indar asko gaitzen ari gara euskaldunok «atxe» dela eta ez dela, burjesa dela eta ez dela.

—Berriz ere haserako gaira bildu gara. Nola hel gintezke elkartasuna batera euskaldunok?

—Bat izan gintezke gauza askotan. Bat izan gintezke arlo asko-

tan neurri haundi batean. Elkar gaitzen batera jasaten ditugun hauzietan. Hau egiten ez dugun bitartean kulturaren eta herriaren aurka ari gara. Kezkati eta urduri daukagu herria gure eztabaida eta hika-mika antzu hoiekin. Susmo txar gehiegi egiten dugu. Elkartasun honera hel ez gaitzen, bakoitzak zer eragozpen jartzen duen aztertu behar du. Norberia asko dago. Elkarriketarako biderik ez edukitzeak asko txartzten du batasun giroa. Halere, agian, orain dela bi urte baino hobeto gaude alderdi honetatik. Irekitasunak berak sortuko du elkartasuna ere.

—Demokraziaz hitzegin dugu lehen. Demokraziaren eta sozialismoaren haberik sendoenetakoa, berdintasuna dugu. Sozialismotzat har al daiteke gizon bakoitzaren eta herri bakoitzaren eskubidea eta berdintasuna aitortzen ez dituen sozualismoa?

—Hori ez da sozialismoa, nahiz eta zenbait hala uste izan. Baina herria bera ezagutzen ez badute edo ukatzen badute ze deabru aitortuko dituzte, bada, herri horri dagozkion eskubideak? Zein herriakoa sentitzen duen bere burua da kaka.

—Bai al duzu sinesmenik eta itxaropenik Euskal Herriari?

—Bai horixe. Ikaragarritzko zirrara egin zidan behin batez Mitxelena entzun nionak: «Erromantizate garaian, izan zuen Euskal Herriak ere eraso gogorra. Eraso horrek ito zituen beste herri guztiak. Baina bizi da oraindik gure herria». Eskolaren, telebistaren, irratien eta erdal kulturaren enbata garaitu behar ditu. Ez dezagun ahantz, ordea, euskal kulturaren zerbitzutan ere jar daitezkeela denboraz. Badut itxaropenik. Iraungo du gure herriak.

ERRIALDE



Hona hemen Gernikako Juntetxean dagoen irudi bat Bertan idatziak dauden hitzek hau diote:

AU DA NOLA MILLA TA LAREUN TA IRUROGETA AMARGARREN URTEETAN GARAGARRILLAREN OGETA AMARGARREN EGUN, ERREGE JAUN FERNANDO BOSGARRENAK GERNIKAKO ARBOLEN BEAN BIZKAITARRAI KONFIRMATU EGIN EBAN EUREN FORUAK ETA EURAK BEREGAN EUKITZEA